


LAN TALDEAREN BILERA	
DATA: 2024.09.09	BILERA ZENBAKIA: 8
ORDUA ETA LEKUA: 17:30tan Itsasondoko Udalean	
PARTEHARTZAILEAK: Bihotza (gizarte langilea), Elena (Udal zinegotzia), Jabi, Maider, Ainhoa .	

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA		
<u>GIZARTE ZERBITZUAK ITSASONDON</u>		
ITSASONDO BIZIMODU DUINAREN HERRIaren diagnostikoan azaleratu ziren beharrei erantzuna emanez: - Herritar guztientzat hitzaldi informatibo bat; Gizarte Zerbitzuen alorrean eskeintzen diren baliabideen inguruan: Abenduak 10an egingo da Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz. <u>ERROLDATA BERRIAK:</u> Uztaila eta Abuztuan izan diren ERROLDATU BERRIen zerrenda ez dago jasota. <u>KULTURARTEKOTASUNA:</u> - Datorren euskara eta kulturartekotasun bileran planteatu nahi da udal eta herri mailan antolatu diren ekintza guztiak zerrendatu eta bakoitzarekin kulturartekotasun eta euskara uztartuko duten lanketa bat egitea. - Te-tertulia: Urriak 22an dago zehaztuta hurrengo elkarketa. Arduradunak elkartu behar dira zer nahi den bertan planteatu. - Udal mailako langile eta zinegotzien formakuntza Urriak 08an eta Urriak 22an egingo da arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. - Herriko festetako paella janean ohituraz gure elkarguneetan partehartzeko joerarik ez duten herritarrak gonbidatuko dira. <u>ETXEBIZITZA ETA IRISGARRITASUNA:</u> GESLANekoen diagnostikoaren emaitzak azaroa edo abendurarte ez dira mahai gainean izango.		
ETXEKO- LANAK / ARDURAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Gizarte Zerbitzuen gida prestatzen hasi	Abendua	Bihotza
Uztaila, abuztua eta Iraileko errolda zerrenda eskatu Jose Luis-i	Urria hasieran	Bihotza
Galdetu Jose Luis-i eha erroldatu berriei ze harrea egiten zaien, ongizate arduradunekin harremanetan jartzeko aukeraz hitzegin zaien galdetu	Iraila	Bihotza



Te-Tertulian landuko den gaia adostu	Iraila	Maiden-Jone
GESLANeko diagnostikoaren jarraipena	Iraila	Erkuden-Jabi
Herriko festetako partehartze kulturaztasun bultzatu; gonbidapenak eskuratu eta eskeini eta BEITI igoerarako bizikletak ez dituztenei lortzeko ahaleginetan lagundu.	Iraila	Ongizate Batzordea-Eskola
HURRENGO BILERA		
ONGIZATE (Urriak 07 - 17:30 udaletxean) • Udaletxean JUBILATUAK (Urriak 14 - 17:00) • Bizi Nahi elkartean		